

Urriaren 23tik abenduaren 23ra

GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA, 2017

- ***Aurten, gripearen aurkako kanpaina, 65 urtetik gorakoei, gaixotasun kronikoak dituztenei, haurdun dauden emakumeei eta osasun-arloko langileei zuzentzeaz gainera, lehenengoz zuzenduko zaio euskal gizarteari oro har, eta kutsadurak saihesteko oinarrizko higiene-aholkuak emango dira.***
- ***Txertoa da prebentzio-neurri nagusia, segurua eta eraginkorra delako, gripearri aurre egiteko eta arrisku-taldeetan oso larriak izan daitezkeen konplikazioak saihesteko.***
- ***Osasun Sailak eta Osakidetzak normaltasun eta erresponsabilitate mezua bidali dute txertaketa, urtero bezala erizainek garatuko dutelako legearen esparruaren barruan***
- ***Jasotako txertoaren dosiak 400.000 dira, eta kopuru hori areagotu daiteke, beharrezkoa izanez gero, 1.200.000 euroko inbertsio ekonomikoarekin.***

Jon Darpón Osasun sailburuak, gaur, gripearen aurkako 2017ko txertaketa-kanpaina aurkeztu du, Vitoria-Gasteizen; **urriaren 23an, astelehenean, hasiko da, eta abenduaren 23ra arte luzatuko da.** Kanpainak bi hilabete iraungo du; **kanpainak iraun bitartean, osasun-zentroek, ambulatorioek eta ospitaleek txertoa normaltasun osoz emango dute, beste urte batzuetan bezala.** Prentsaurrekoan, Osasun sailburuarekin batera Andoni Arcelay doktorea, Osakidetzako Osasun Laguntzako zuzendaria, eta Miren Dorronsoro doktorea, adikzio eta osasun publikoko zuzendaria, izan dira.

Sailburuak argi utzi du **aurten txertaketa-kanpainako helburuak, arrisku-taldeetako pertsonen banakako osasuna babesteaz gainera, gainerako**

herritarren osasun kolektiboa babestea ere badela, oinarrizko prebentzio-neurri errazen bidez. Gainera esan du *“garrantzitsua dela, gizarte heldua eta garatua garen aldetik, kontzientziatuta egotea, gaur egun, txertoa hartzea gripeari aurre egiteko dugun prebentzio-neurri komunitario nagusia dela”*.

Astelehenetik, hilak 23tik, aurrera, txertoa osasun-zentro guztietan egongo da eskuragarri, **65 urtetik gorakoentzat, gaixotasun kronikoak dituztenentzat -besteak beste, diabetesa, BGBK, kardiopatiak, giltzurruneko gaixotasuna etab.- eta haurdun dauden emakumeentzat, hala nahi badute.**

“Txertoa hartzea pertsonen, erakunde arduradunen eta osasun-langileen erantzukizun-ekintza da”, esan du Jon Darpónek. **Izan ere, iaz, 65 urte gorako pertsonen artean, 10etik 4k ez zuen txerto hartu.** Hori dela eta, aurtengo kanpaina eta mezua adinekoei zuzentzen zaie: **“Gripearean aurrean, ez indartsu plantarik egin. Hartu txertoa”**.

Gripea, urtero errepikatzen den **osasun publikoko arazoetako bat izateaz gainera, ondorio larriak ekar dakizkieke ahulenak direnei.** Hori dela eta, Jon Darpón sailburuak gogora ekarri du txertoak arazoak eta konplikazioak saihesten dituela, eta jakinarazi du pasa den denboraldian ospitaleratu behar izan zituzten gripe-kasu larrien **229 kasu** erregistratu zirela. Horietatik azaldu du **“59 ZIUn geratu behar izan zirela eta, horietatik, % 90ek arrisku-faktoreak zituela edo 64 urte baino gehiago zituela”**. Azkenik, **31 pertsona hil ziren eta hildako pertsonen % 47k ez zeukan txertoa jarrita,** nahiz eta gripearean aurkako txertaketa-kanpainan jaso diren arrisku-taldeetan egon.

Osasun sailburuak argi utzi nahi izan du **gripearean txertoa segurua eta eraginkorra dela,** eta ia ez dagoela kontrako eraginen susmorik. Halaber esan du konposizioa, urtero, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) iparraldeko hemisferiorako aurreikusitako anduietara egokitzen dela.

Kanpaina honetarako iragarri du **400.000 txerto** daudela eta kopurua handitu daitekeela, beharrezkoa izanez gero; **1.200.000 euro inbertitu** dira txerto horiek erosteko.

Bere adierazpenean, Jon Darpón sailburuak lasaitasun-mezua helarazi die euskal gizarte osoari eta mediku eta erizainei, aurtengo txertaketa-kanpaina nola garatuko denaren inguruan, 954/2015 Errege Dekretua betetzeari dagokionez. **“Gripearean aurkako txertaketa-kanpaina beste urteetan egin den moduan egitea da gure asmoa. Pazienteak osasun-zentrora bertaratuko dira txertoa jartzera. Jaurlaritzak segurtasun juridikoa bermatuko die erizain zein medikuei, beren eginkizun eta betebeharrak egin bitartean, eta lege-esparrua errespetatuko du”.**

Ilido horretatik, Jon Darpón sailburuak azaldu duenez, **Osasun Sailburuaren Agindu bat onartu da, osasun-agintaritza eta osasun publikoaren arduradun gorena den aldetik, preskizio mekanismo bezala eta Lurraldearteko Kontseiluaren osasun publikoari buruzko Batzordeak irailaren 28an onartutako aholkuen arabera**, Osakidetza langileei beren lanarekin jarraitzeko aukera emango die, hau da, euskal gizartearen osasuna zaintzen jarraitzeko aukera. Hala, adierazi duenez, **“osasun-agintaritzaren erabaki horrek bermea eta estaldura juridiko eta sanitarioa emango die erizainei, haien ardura baita txertoen dosiak jartzea”.**

Hortaz, Agindu horren bitartez, osasun publikoaren alorrean osasun-agintaritzak hartutako erabaki baten arabera egingo da txertaketa, gripearean birusaren ondoriozko infekzioak direla eta pertsonak konplikazio larriak garatu edo hiltzeko arrisku epidemiologikoaren aurrean.

Osasuneko sailburuak, gainera, **osasun alorreko langileen profesionaltasuna, erantzukizuna eta konpromisoa eskertu** nahi izan ditu, pazienteen beharrianak beren interesen aurretik ipini baitituzte eta pertsonen osasunaren ongizatearen alde lan egin baitute beti.

Zer egin behar da txertoa hartzeko?

65 urteko edo gehiagoko pertsonak, gaixotasun kronikoa dutenak eta haurdun dauden emakumeek ohiko osasun-zentrora osasun-txartelarekin joan besterik ez dute, baina komeni da, hala ere, aurretik telefonoz deitzea, txertaketa-ordutegien berri izateko, eta malguak eta kanpainara egokituak izango diren jakiteko.

Osakidetzako kontingentzia-protokoloa gripearri aurre egiteko

Osakidetzak, dagoeneko, badu kontingentzia-plana; horren bidez, behar diren baliabideekin eta antolaketarekin aurre egin ahalko zaie gripearen epidemiari, batetik, eta neguan zentroetan izaten den maiztasunari, bestetik. Helburua paziente guztiei ahalik eta normaltasun gehienez arretea ematea da.

Aurreko urteetan bezala, gripearen **eta eskuragarri dauden laguntza-baliabideen zaintza epidemiologiko zorrotza egingo da.**

Segimendu epidemiologikoa lau punturen koordinazioan oinarrituko da:

- **“Mediku jagoleen sarea” medikuntza orokorreko medikuek eta lehen arretako pediatriako medikuek eratzen dute, eta gaixotasunaren eraginpean dagoen pertsona-kopuruaren berri emateko ardura du:**
- **Erreferentziazko mikrobiologiako laborategiak, diagnostikoak eta anduiak baieztatzekeo arduradunak**
- Paziente larrienen segimendua egiten duten **ospitaleen informazio-sistemak**
- Osasun Saileko **Osasun Publikoko teknikariak**, erregistratutako datuen azterlanaren eta analisi xehatuaren arduradunak.

Gainera, etengabeko koordinazioa izango da, egunero ia, zerbitzu-erakundeen laguntza-mailen artean, Larrialdiekin koordinazioan. Koordinazioaren buru Osakidetzaren Osasun Laguntzako Zuzendaritzako batzorde berezia izango da.

Batzorde hori ESI guztiek eta kronikoen ospitaleek osatuko dute, eta horiek izango dira egoeraren segimendua egiteko arduradunak, dela kontsultetan eta lehen arretako larrialdietan, dela ospitaleetako larrialdietan, eta oheen egoera egiteko arduradunak. Beharrezkoa izanez gero, Batzorde hau izango da, gainera, baliabideak eta pazienteen banaketa koordinatzeko arduraduna.

2017ko txertaketa-kanpainaren irudia eta estrategia

Kanpainarako, Osakidetzako ospitaleetako eta osasun-zentroetako fatxadetan eta autobus-geltokietan eta metroetan olanak jarriko dira, eta prentsa idatzian eta digitalean, telebistan, irrati-iragarkietan eta Sailaren web-orrialdeetan agertuko da.

Gainera, aurten, lehenengoz **saiatuko gara euskal gizarte osora heltzen, eta ez bakarrik arrisku-taldeetara**. Horrela, kalean **milaka liburuxka banatuko dira, gripearen aurrean geure burua babesteko eta pertsona ororentzat, arrisku-taldekoak izan ala ez izan**, intereseakoak diren neurri higienikoei buruzko informazio errazarekin eta oinarrizkoarekin. Mezu horiek irrati, egunkari, osasun-zentro eta anbulatorioetan, Osakidetzaren web-orrialdean eta Osasun Sailarenean eta beste hainbat tokitan ere errepikatuko dira.

Horrela, gizarte osoari gogoraraziko zaio garrantzitsua dela prebentzio-neurri gisa:

- **Erabiltzeko eta botatzeko paperezko zapiak erabiltzea**
- **Eztula edo doministiku egitean, ahoa edo sudurra besoarekin estaltzea**
- **Eta eskuak urarekin eta xaboiarekin garbitzea sarri**

Informazio hau osatzeko, **Osakidetzaren osasun-baliabideen erabilera arduratsua** egiteko gomendioa hartu behar da aintzat; funtsezkoa da hori behar bakoitzera egokitzen den osasun-arreta eskaini ahal izateko. Horrela, liburuxka hauetan adieraziko da pertsona bakoitzak, bere osasun-egoeraren arabera, baloratu behar duela zein den osasun-zerbitzu egokiena norberaren arazoari arreta emateko eta konpontzeko. Horrela, ez dugu alperrik itxaron behar izango arreta jasotzeko eta ez da osasun-sistema saturatuko.

Gainera, Osasun Sailak eta Osakidetzak eskuragarri dituzten baliabideak jarriko dituzte erabilgarri, gripearen aurkako txertaketa-kanpainan parte hartzeak duen garrantziaz informatzeko eta kontzientziazteko:

- **Profesionalen osasun-batzordea indartuko da**, lehen mailako arretan eta ospitale-eremuan.
- **Txertoa hartu** nahi duenak **erraz eta modu eskuragarrian** egiteko bide emango da.
- **Telefonoz, gutunez eta Beti On laguntza-zerbitzuaren bidez jakinarazi eta gogoraraziko da txertoa hartzeko beharra.**
- Gripearen aurkako txertaketari buruzko **mezuak** sartuko dira **osasun-zentro eta anbulatorioetara egiten diren telefono-deien itxarotemoduetan.**
- **Kanpainaren irudia eta mezua** sartuko dira **alta-txostenetan, hitzordu-dokumentuetan, mezu elektronikoen oin-oharretan eta zentroetan ditugun informazio-monitoreetan.**
- **Eta arreta berezia eskainiko zaie haurdun dauden emakumeei.**

Aurkezpenaren amaieran, Osasun sailburuak eskerrak eman dizkie foru-aldundi, udal, farmazialarien elkargo eta elkarteei, Kutxabanki eta Laboral Kutxari, aurten ere gripearen aurkako txertaketa-kanpaina zabaltzen laguntzeagatik. Gainera osasunaren alde egunero diharduten osasun profesionaleei ere eskerrak eman die euren lana eta konpremezuarengatik.